

JANGELA ZERBITZUA 2024-2025



ENPRESA ARDURADUNA: UTE SERUNION-AIBAK

ESKOLAKO ARDURADUNA: Miren Santamaria / Aintzane Irastorza
(jangela@astieskola.eus)

JANGELAN IZEN EMATEA

OHIKO BAZKALTIAARRAK

Ohiko bazkaltiarak ikasturte osoan zehar eta egunero edo maiztasun jakin batean jangelan bazkaltzen duten ikasleak izango dira. Horiek ikasturte hasieran izena eman beharko dute ikasturte osorako.

NOIZBEHINKAKO BAZKALTIAARRAK

Izena emateko eskolara deitu edo email bat bidali beharko dute aurreko egunean, eta arratsaldeko **15:00ak baino lehen gehienez ere**.

943 55 12 62 / jangela@astieskola.eus

Izena emateaz gain, LH2. maila bitarteko ikasleak tarteka geratzen direnean, tutoreari jakinarazi beharko diote ohar baten bidez, bera ere jakinaren gainean egon dadin.

JANGELA ZERBITZUAREN KUOTAK ETA ORDAINKETA

- **Ohikoen kuota:** 4,60 € eguneko - **82,34€ko** kuota finkoa 10 hilabetetan.
- **Egunero gelditzen den ikaslea** eta **garraiatua** izateko eskubidea duena (bizilekua eskolatik 2 km. baino gehiagora): 3,30 € eguneko - **59,07€ko** kuota 10 hilabetetan.
- **Noizbehinkakoen kuota:** 5,20€ eguneko.

Kobrantzak banku-helbideratzearen bidez egingo dira zerbitzua erabili eta hurrengo hilabetean.

Urtero **jangela-beka** eskatzeko aukera dago ikasturte hasieran argitaratzen den deialdiaren bidez ([Hezkuntza Saila Bekak](#)).

Ordaindu gabeko kuotarik balego, araudiaren arabera, hilabete bateko kuota atzerapena duten ikasleek ezin izango dute jangela erabili, aurrez arduradunarekin harremanetan jarri eta arrazoiak ematen ez badituzte.

AZPIEGITURAK

Astitxikiko jangela: Astitxiki 1 lokalean kokatua, HH2 urteko ikasleentzat.

Jangela txikia: Beheko solairuan kokatua, HH3, HH4 eta HH5 urte bitarteko ikasleentzat.

Jangela handia: Lehen solairuan kokatua, LH1etik LH6ra bitarteko ikasleentzat.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Jangela zerbitzua **irailaren 9an** hasi eta **ekainaren 20an** amaituko da.

JANGELAKO TXANDAK ORDUTEGI OSOAN (goiz eta arratsaldez)

ASTITXIKI		JANGELA TXIKIA		JANGELA HANDIA	
11:30	HH2CD	12:00	HH3 - HH4AB	12:00	LH1 / LH3 / LH4
12:15	HH2AB	13:15	HH4CD - HH5	13:15	LH2 / LH5 / LH6

Siesta egiten ez duten HH2ko ikasleak bazkaldu ondoren jasoko dira.

JANGELAKO TXANDAK ORDUTEGI TRINKOAN (goizez bakarrik)

ASTITXIKI		JANGELA TXIKIA		JANGELA HANDIA	
12:30	HH2CD*	13:00	HH3 - HH4AB	13:00	LH1 / LH3 / LH4
13:15	HH2AB*	13:45	HH4CD - HH5	13:45	LH2 / LH5 / LH6

Ordutegi trinkoan HH2 eta HH3ko ikasleek ez dute siestarik egiten.

* HH2koak urrian hasiko dira jangelan.

ORDUTEGI TRINKOAN HAURRAK JASOTZEKO LEKUAK ETA ORDUAK

MAILA	LEKUA	ORDUA
HH2AB*	Astitxiki 1	14:45
HH2CD*	Astitxiki 2	
HH3	Patio txikian (ondarlekuan)	
HH4	Patio txikian (sarrerako aterpean)	

HH5 - LH6	Patio handian (mailari dagokion bilgunean)	
-----------	--	--

* HH2koak urrian hasiko dira jangelan.

ANTOLAKETA

- Txandak ikasle kopuruaren eta hauen adinaren arabera antolatzen dira jangela bakoitzeko edukiera kontuan izanik.
- Jangeletarako sarbidea, sarrerak... antolatuko dira ikasleen itzarote-ilarak eta haien arteko gurutzatzeak saihesteko.
- Bazkari txanden artean eta zerbitzuaren ondoren ukipen-elementu guztiak garbituko dira eta ikasleak iritsi aurretik jangela aireztatuko da.
- Atsedean orduan, ikasleak mailaka banatuko dira jolas-gune desberdinetan:
 - HH4-HH5: Patio txikian.
 - LH1-LH6: Patio handian.
- Atsedenaldirako ikasleek etxetik irakurgaiak, mandalak, eskupilota, ping-pongean aritzeko materiala edota ziba ekarri ahal izango dituzte. Gainerako materiala eskolak eskainiko du: soka, goma...
- HH2 eta HH3ko ikasleek siesta egiteko aukera izango dute.
- Guraso Elkarteak antolatutako eskolaz kanpoko jardueretan parte ahal izango dute HH5etik gorako ikasleek.
- Gainontzeko eskolaz kanpoko jardueretara atera ahal izateko baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen eredia eskolan eskuragarri egongo da.

MENUAK

- Jangelan oinarrizko menua eta bazkaltiarren ezaugarrietara egokitutako menuak zerbitzatzen dira (alergiak edo intolerantziak, erlijio-sinesmenak). Ikasle batek, osasun arazoa dela medio, beste menuren bat beharko balu, medikuak emandako osasun-ziurtagiria aurkeztu beharko du enpresari menu berezia eskatu ahal izateko.
- Hilabeteko menua [eskolako web orrian](#) ikusgai jarriko da hileroko.
- Jangelan, enpresak ekartzen dizkigun menuak besterik ez dira onartuko.

INFORMEAK

- Abenduan eta ekainean jangelako jarraipen txostena bidaliko da.

- HH2 eta HH3koek eguneroko martxaren berri izango dute ere, haien ikasgeletako leihoetan ikusgai jartzen diren informazio-taulen bidez.

OHARRAK

- Bazkaltiarren bat etorriko ez bada, telefonoz edo emailaz abisatu behar da jangela zerbitzuan (garrantzitsua, ahal izanez gero bezperako 15:00ak baino lehenago).
943 55 12 62 / jangela@astieskola.eus
- Jangelatik lehenago ateratzeko, edota bertara beranduago sartzeko, justifikatutako arrazoi bat agudiatu beharko da.
- Jangelako begiraleek ezin dute botikarik eman.

ARAUDIA

[Hezkuntza sailaren menpeko eskola-jantokiak](#)

BEGIRALEAK MAILAZ MAILA

TALDEA	TUTOREA_	HEZITZAILEA
HH2A	SUSANA	ANNIA + ZUAITZ
HH2B	BEGOÑA A.	JOSUNE + ZUAITZ
HH2C	MAITE G.	ANA M. + ANA G.
HH2D	EMMA	MARIA + ANA G.
HH3A	NORA	LEIRE
HH3B	MATI	KRISTINA
HH3C	AMAIA A.	OIHANA
HH3D	ENARA	OLATZ
HH4A	BEGOÑA E.	MAIALEN
HH4B	ANE	MIKEL
HH4C	MAITANE	MAMEN
HH4D	IDOIA Z.	SERGIO
HH5A	IONE	ANE
HH5B	LOLI	MADDI

HH5C	RAMON	ANA G.
HH5D	VIRGINIA	ESTI

TALDEA	TUTOREA	HEZITZAILEA
LH1A	MARIJO	NAIARA NEREA
LH1B	IDOIA A.	
LH1C	AINHOA A.	
LH2A	LORENA	EDERNE LEIRE MARIJO
LH2B	AMAIA R.	
LH2C	NEREA G.	
LH2D	MAIDER	
LH2E	AINHOA GARIN	
LH3A	MAITE A.	NELIA MAITE I.
LH3B	LOHIZUNE	
LH3C	IZASKUN L.	
LH3D	MIREIA	
LH4A	ITXASO	JESSICA NEKANE
LH4B	OLAIA	
LH4C	AINHOA GARAY	
LH4D	ESTITXU	
LH5A	GOIZALDI	ALEX
LH5B	KONTXI	
LH5C	INMA	
LH6A	IÑIGO	AINITZE
LH6B	ASIER	
LH6C	IÑAKI	